



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

URTEKO KUDEAKETA ETA PLANGINTZA TXOSTENA

Onarpen data:

www.ehu.eus



AURKIBIDEA

0. Aurkezpena

1. Kalitate politika berrikustea

2. Ikastegiko prozesuen mapa eta erantzukizunen taula

3. Ikastegiko titulazioak

4. Aurreko ikasturtean egindako ekintzak

5. Emaidzak

5.1 Prozesukako gestioaren gako emaitzak

5.2 Tituluen emaitza nagusiak

6. Europear Unibertsitateen ildo eta estandarren jarraipena

7. Hobekuntza ekintzen plana hurrengo ikasturterako



0. Aurkezpena

Goimailako Online Ikastegia (GOI aurrerantzean), Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU aurrerantzean) baitan antolatutako ikastegia da, online unibertsitate ikasketak euskaraz sustatzeko sortua. Helburu hori betetzeko asmoz, UEUk eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU aurrerantzean) hitzarmena sinatu zuten, 2019ko uztailaren 1ean, GOI ikastegia UPV/EHUren ikastegi atxiki bihurtzeko eta arautzeko. Hitzarmen horren bitartez, GOI ikastegiak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterra (Irakaskuntza Masterra) eskaini zuen lehen adiz 2020-21 ikasturtean, euskaraz eta online. Proiektu horrek UPV/EHUk duen eskaintzarekin osagarria izateko eta Europako testuinguruaren esparruan goi-mailako ikasketen etengabeko berrikuntza bultzatzeko asmoa du. Aldi berean, erdi presentziala den ibilbide bat diseinatu da berrikuntzaren inguruko irakasgaiak heziguneetan ikas eta ebalua daitezzen.

Horrekin batera, 2021-22 ikasturtean aditu-titulu berria eskaini du GOIk: Humanitate Digitalak: Aukera berriak ikertzen. Diziplinarteko aditu-titulu honek Humanitate Digitalak ditu ardatz, eta bi aztergai nagusi dauzka: batetik, Humanitateetako aditu eta profesionalek darabiltzaten metodo eta baliabideak, eta, bestetik, digitalizazioak askotariko diziplinetan eragin dituen aldaketak.

GOI ikastegiak etengabeko eta goi mailako online prestakuntza sustatzeko duen helburua oinarri hartuta, ikasketa aukera berriak bilatu eta bideratzeko konpromiso sendoa du, gizarte esparruetan prestakuntzaren eta ikerkuntzaren alorretan sortzen ari diren premia berriei eta eskaerei erantzuteko bideak irekiz.

Unibertsitate-mailako online ikasketak sustatzeaz gain, ikerketarako esparru propio bat sortzeko abagunea ere eskaintzen du GOI Ikastegiak.



1. Kalitate politika berrikustea

Dokumentu honetan, GOI ikastegiak kalitatearen, hobekuntzaren eta berrikuntzaren kudeaketari buruz duen ikuspegia eta konpromisoa azaltzen da. Kalitate Programak jasotzen du GOI ikastegiaren konpromiso hori.

Ikastegi hasiberria garenez, hauxe da Kalitate Programa definitzeko gure lehen ahalegina. Alde horretatik, ikastegiko Zuzendaritza Taldeak, 2022-23 ikasturte honetan, Kalitate Politikaren adierazpen hau Zuzendaritza Batzarrari helaraziko dio onartu eta bere egin dezan proposatuz.

Kalitate Politika

Kalitatea da UEUren ardatz estrategikoetako bat eta, ondorioz, baita Goi ikastegiarena ere. Beraz, Kalitate Politika zehaztea ezinbestekoa da eta GOI ikastegiak, zeregin hori bere eginez, bere prozesu guztietan kalitatea bermatuko duen sistema diseinatu eta inplementatuko du, bere interes-taldeen beharrak eta itxaropenak betetzen direla zainduz eta horretarako baliabideak eraginkortasunez erabiliz.

Kalitate Politika jasotzen duen dokumentu hau, ikastegiko Zuzendaritza Taldeak eguneroko lanean erabiltzen duen kudeaketa sistemaren adierazpen materiala da, kalitatezko irakaskuntza lortzeko helburu orokorrean ezinbesteko tresna izanik. Horregatik, UPV/EHUK kalitatea bermatzeko sortu duen UNIKUDE tresnaren bidez etengabe eguneratzen den dokumentua izango da honako hau, une bakoitzean KBBSk duen benetako egoeraren isla zehatza.

Kalitate Politika zehaztearekin batera, ikastegiko Kalitatea Batzordea osatzea ere badagokigu. Kalitate Batzordearen eginkizun nagusiak izango da KBBSa diseinatu, ezarri, abian jarri eta hari jarraipena egitea, horrek bere baitan hartzen dituen gainerako eginkizun guztiekin. Kideak honako hauek izango dira: Zuzendaria edo berak izendatutako ordezkari bat, Idazkaria eta gutxienez Ikastegiko Zuzendaritza Batzordeak hautatutako Administrazioako eta Zerbitzuetako Langileen ordezkari bat, Irakasle bat eta Ikasle bat. Kalitate batzordearen eginkizun zehatzak honakoak izango dira:

- a) KBBS (SGIC) Kalitatearen Barne-Berme Sistemaren diseinua, garapena eta jarraipena sustatzea.
- b) Dagokien adierazleen bitartez prozesuen jarraipena egitea.
- c) Kalitate Batzordean jasotako proposamenak Ikastegiko Zuzendaritza Batzordeari helaraztea.
- d) Asebetetze inkesten emaitzak jaso eta bertan adierazten diren hobekuntziei begira irizpideak proposatzea.
- f) KBBS aztertu eta egokitu eta hortik eratorritako Urteko Jarraipen Txostena burutu, eta bertan, ikasketen helburuak lortzeko beharrezkoak diren hobekuntza ekintzak proposatu.
- g) Tituluaren akreditazioa eta honen berrikuntzan eragitea.

Bestalde, Zuzendaritza Batzordeari dagokio, ikastegiko gobernu eta ordezkaritzarako kide anitzeko organoa den aldetik, haren kalitate politika eta helburuak onartzea, bai eta Kalitate Batzordearen eraketa, osaera eta eginkizunak onartzea ere. Orobat, Zuzendaritza Batzarrari dagokio titulaziorako proposatzen diren hobekuntza ekintzak onartzea, graduondoko tituluaren kalitatea bermatzeko sistemaren esparruan, Kalitate Batzordeak egindako txostenak oinarri hartuta, besteak beste.

Beraz, Zuzendaritza Batzordearen 2022-23 ikasturteko zereginen artean, Kalitate Politika onartzeaz gain, Kalitate Batzordea osatzea ere sartu beharko dugu.

Helburua

Kalitate-politikaren helburu behinena honakoa da: GOI ikastegiaren erantzukizun eta betebeharrei erantzuteko gai garela ziurtatzea, bai gure kideei begirakoak (ikasle, langile eta partaide diren erakundeekiko) eta baita gure interes taldeekikoak ere (ikastetxeak eta gizartea, oro har).

Helburu horretara begira, sistema bera modu eraginkorrean ezartzea nahi genuke, beharrezko prozesuak eta adierazleak eguneroko zereginetan etengabeko hobekuntzaren bidez txertatuz.

GOI ikastegiko Zuzendaritza Taldeak, aipatutako helburuak aintzat hartuz, ondoko ildo edo ardatz estrategikoak definitu ditu, Kalitate Politikaren oinarri izango direnak:

- GOI ikastegiak eskaintzen dituen master eta graduondokoen bidez, euskal gizartearen premietara egokituko diren profesional



kualifikatuak prestatzea.

- Jendartearen arazoetatik gertu egotea. Ikas-irakaskuntza eta ikerkuntza esparruak herrigintzatik eta euskaigintzatik hurbil mantentzea, haien beharrei erantzunez.

- Lehiakorra eta erreferentziazkoa izatea. Etengabeko prestakuntza proiektuak diseinatuz eta gizarte esparruetan prestakuntzaren eta ikerkuntzaren alorretan sortzen ari diren premia berriei erantzunez.

- Euskal curriculumean oinarritzea. Hezkuntzaren erronka globalari, euskal ikuspegitik aurre egiten ahaleginduz.

- Hezkidetzan oinarritua izatea. Hezkidetzari eta pedagogia feministei loturiko jardunbide eta praktikak zabalduz eta sustatuz eguneroko hezkuntza praktikan.

- Ikerketaren eta irakaskuntzaren arteko harremana sendotzea, ikas-irakaskuntzako prozesuetan metodologia berritzaileen erabilera areagotuz.

- Teknologia pedagogiaren mesedetan baliatzea, kalitatezko online ikas-irakaskuntza inguruneak garatzeko.


- Saretzea. Euskal Herrian dauden sare akademiko, sozial eta beste ikerguneekin lankidetzara sustatzea. Euskal Herriko unibertsitateen arteko elkarlana ardatz hartuta eta nazioarteko ikerguneekin lankidetzara bilatuz.

Kalitate politikaren berrikuspena



2. Ikastegiko prozesuen mapa eta erantzukizunen taula

Ikastegi honek prozesuakako gestioa bere sistemaren bidez egiten du, eta hurrengo prozesuen mapan ikusten da.:



Prozesuen araberrako erantzukizunen taula

1.- PLANGINTZA

PROZEDURA	ARDURADUNA	PARTAIDEAK
1.1, Urteko Plangintza eta Kudeaketa	Zuzendaria	Batzorde Akademikoa Zuzendaritza Taldea
1.2, Titulazioaren plangintza eta akreditazioa	Zuzendaria	Kalitate Batzordea Zuzendaritza Taldea
1.3, EHU-GOI lankidetzak	Zuzendaria	UPV/EHUren ordezkaria Batzorde Akademikoa HEFA Irakaskuntza Masterra
1.4, Kanpo lankidetzak	Zuzendaria	Zuzendaritza Taldea Kanpo kolaboratzaileak

2.- IKAS-IRAKASKUNTZA

PROZEDURA	ARDURADUNA	PARTAIDEAK
2.1, Izen-ematea eta matrikula	Administrazioa	Idazkari akademikoa



Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Goimailako Online Institutua
Goimailako Online Institutua

		Administrazioa Zuzendaria
2.2, Irakaskuntzaren antolaketa eta koordinazioa	Idazkari akademikoa	
2.3, Tutoretza	Idazkari akademikoa	Irakaskuntza Masterra: espezialitateko koordinatzailea Batzorde Akademikoa
2.4, Practicuma	Practicum arduraduna	Administrazioa GOI irakaslegoa Practicum arduraduna Batzorde Akademikoa
2.5., MAL	Administrazioa	MAL arduraduna Batzorde Akademikoa GOI irakaslegoa
2.6., Berrikuntza Ikasgelan ibilbidea	Zuzendaria	

3.- IKERKETA

PROZEDURA	ARDURADUNA	PARTAIDEAK
3.1, Ikerketa eta Transferentzia	Zuzendaria	GOI irakaslegoa Batzorde Akademikoa Zuzendaria UEU Kanpo kolaboratzaileak

4.- KUDEAKETA

PROZEDURA	ARDURADUNA	PARTAIDEAK
4.1, Langilegoaren kudeaketa eta formakuntza	Zuzendaria	Zuzendaria Administrazioa
4.2, Akta eta kalifikazioen kudeaketa	Idazkari akademikoa	Batzorde Akademikoa Idazkari akademikoa
4.3, Kredituen aitortpena eta transferentzia	Administrazioa	Idazkari akademikoa Zuzendaria
4.4, Beka, ziurtagiri eta tituluen kudeaketa	Administrazioa	
4.5, Kudeaketa ekonomikoa	Administrazioa	Administrazioa Zuzendaria
4.6, Online ereduaren kudeaketa	Zuzendaria	Administrazioa Zuzendaria

5.- EBALUAZIOA

PROZEDURA	ARDURADUNA	PARTAIDEAK
5.1, Emaizten jarraipena eta azterketa	Zuzendaria	Kalitate Batzordea Zuzendaritza Taldea Practicum arduraduna MAL arduraduna
5.2, Iradokizun eta kexen kudeaketa	Zuzendaria	



Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Goimailako Online Institutua
Goimailako Online Institutua

6.- KOMUNIKAZIOA

PROZEDURA	ARDURADUNA	PARTAIDEAK
6.1, Kanpo eta barne komunikazioa	Zuzendaria	Zuzendaria Idazkari akademikoa



3. Ikastegiko titulazioak

Ikastegi hau jarraian datozen tituluak emateaz arduratzen da:

GRADUAK



Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Goimailako Online Institutua

Goimailako Online Institutua

MASTERRAK

RUCT kodea : 4311844GOI

Titulazio kodea: MPROSEG

Masterraren izena : Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntzaren Unibertsitate Masterra / Máster Universitario en Formación del Profesorado de Educación Secundaria Obligatoria y Bachillerato, Formación Profesional y Enseñanzas de Idiomas

URL : eu: <https://www.ehu.eus/eu/web/master/irakasleen-prestakuntza-online-masterra>

es: <https://www.ehu.eus/es/web/master/master-online-formacion-profesorado>



Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Goimailako Online Institutua

Goimailako Online Institutua

Ikastegi hau jarraian datozen tituluak emateaz arduratuko da datorren urtean:

GRADUAK

MASTERRAK



Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Goimailako Online Institutua

Goimailako Online Institutua

4. Aurreko ikasturtean egindako ekintzak

1.- PLANGINTZA

1.1, Urteko Plangintza eta Kudeaketa

Ekintza kodea: 21-GOI-MES-4

Partaideak eta interes-taldeak

Prozeduraren berrikuspena egin da eta partaideak eta interes-taldeak eguneratu.

Arduradun-postua: Director

Jatorria: Besteak

Itxiera data: 2022/06/20

Hartutako neurriak

Prozeduraren berrikuspena egin da eta partaideak eta interes-taldeak eguneratu.

PEC :	RES :	MES	X	MOT	RET :	MET:
-------	-------	-----	---	-----	-------	------

Ekintza kodea: 21-MPROSEG-MET-2

Irakaslegaien motibazioa

Irakasleen motibazioa eta bokazioa kezka eta eztabaida iturri izan da azken urteetan. Ikaskuntza- irakaskuntza prozesua aldatzen ari da , neurri handi batean teknologia berriek eraginda, baina batez ere helburu eta metodologia berriek bultzatuta. Egungo eta etorkizuneko irakasleak erronka ugari dituzte parez-pare: Irakasleek jakin behar dute ikaslea motibatzen, bizitzarako prestatzen, konpetentzietan hezten, eta hori guztia euskara maila onean transmititzen. Guzti horiei aurre egiteko motibazioa gakoa da.

Irakaskuntza Masterrean matrikulatzen den ikaslearen motibazioa anitza da, batzuk bokazioz, beste batzuk irtenbide profesionalaren bila, edo bere lanbidea hezkuntza arlotik gertu kokatzen delako, denak biltzen dira ikasturte batez irakasle izateko gaituko duen masterra egitera.

* Zerk erakartzen ditu?

* Zenbatek daukate irakasle izateko bokazioa?

* Masterrak eraginik izan dezake irakaslegai horien perspektibetan?

Galdera hauei erantzuteko lerro berri bat ireki dugu GOI Ikastegian: irakaslegaien irakas-motibazioa eta bere garapena Irakaskuntza Masterrean.

Arduradun-postua: Secretaria académica

Jatorria: Besteak

Itxiera data: 2022/07/18

Hartutako neurriak

Lanketa hori burutzeko galdetegi zehatz bat prestatu dugu, ikasleek ikasturte hasieran eta amaieran bete beharko dutena. Irakasle jardunarekiko motibazioa eta masterrean izena emateko arrazoiak jasoko ditugu bertan eta ikasturteko ibiliak motibazio horretan eraginik izan duen -eta baiezkotan zertan eragin duen- neurtuko dugu.

Aurtengo practicumeko mintegiak ere gai horri buruzkoak izango dira eta praktikaldian zehar ikasleek behatu eta jaso beharreko alderdia izango da irakaslearen motibazioarena.

Titulazioak:

MPROSEG

PEC :	RES :	MES		MOT	RET :	MET:	X
-------	-------	-----	--	-----	-------	------	---

1.2, Titulazioaren plangintza eta akreditazioa

Ekintza kodea: 20-MPROSEG-MET-11

Irakasle kolaboratzaileen ordainsariak

Irakasle kolaboratzaileen ordainsaria eguneratu da. UEUren Online eredu pedagogikoak eskatzen duen ikasleen banan-banako jarraipena aintzat hartuta, ordainsariak eguneratu dira ikasgai bakoitzeko ikasle-kopurua kontutan hartuz.

Arduradun-postua: Director

Jatorria: Besteak

Itxiera data: 2021/12/02

Hartutako neurriak



Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Goimailako Online Institutua

Goimailako Online Institutua

1.2, Titulazioaren plangintza eta akreditazioa

Erabakia: 2021-12-02ko Zuzendaritza Batzordean

Titulazioak:
MPROSEG

PEC :	RES :	MES	MOT	RET :	MET: X
Ekintza kodea: 20-MPROSEG-MET-12 Matrikularen prezioa Irakaskuntza masterraren ECTS kredituen prezioa eguneratu da masterraren bideragarritasun ekonomikoa bermatze aldera. * 2020-21: 63 €/ECTS * 2021-22: 66 €/ECTS Prezio igoera dozentzia eta tutoretzari lotutako gastuek eragindakoa izan da. Arduradun-postua: Dirección Jatorria: Besteak Itxiera data: 2021/12/02 Hartutako neurriak Erabakia: 2022-04-25eko Zuzendaritza Batzordean Titulazioak: MPROSEG					
PEC :	RES :	MES	MOT	RET :	MET: X

2.- IKAS-IRAKASKUNTZA

2.2, Irakaskuntzaren antolaketa eta koordinazioa

Ekintza kodea: 20-MPROSEG-MET-13 Egutegi akademiko-administratiboa Irakaskuntza Masterrari loturiko prozedura administratiboak berrikusi ostean, ikasle eta irakasleentzako egutegi akademiko-administratiboa zehaztu, ikasturteko zeregin garrantzitsuenak jasotzen dituen. Arduradun-postua: Secretaría académica Jatorria: Besteak Itxiera data: 2021/09/07 Hartutako neurriak Irakasle gehienak kolaboratzaileak direnez, ikasturteko zeregin administratiboak eta akademikoak egutegi bakarrean jasotzeak masterrarekiko lotura errazten du. Titulazioak: MPROSEG					
PEC :	RES :	MES	MOT	RET :	MET: X

2.4, Practicuma

Ekintza kodea: 20-MPROSEG-MET-10 Practicum Practicumari dagokionez, ondoko hobekuntza-ekintzak burutu dira 2021-22 ikasturtean: * EAetik kanpo praktikak egiteko aukera: Nafarroa, Katalunia eta Ipar Euskal Herria. * Practicum arautegiaren eguneraketa Arduradun-postua: Secretaría académica Jatorria: Besteak Itxiera data: 2022/04/25					
---	--	--	--	--	--



2.4, Practicuma

Hartutako neurriak

GOI Institutuak Nafarroako Hezkuntza Departamentuarekin eta Kataluniako Generalitateko Hezkuntza Departamentuarekin finkatu ditu lankidetzak hitzarmenak. Lehenbizikoarekin, UPV/EHUK daukan hitzarmen orokorra baliatu da eta bertan, eranskin gisa, GOI ikastegiko ikasleak txertatu. Kataluniaren kasuan, berariazko hitzarmen bat egin da GOI ikastegiko ikasleek bertan praktikak burutu ahal izan ditzaten.

Erikidego horietatik kanpoko praktikaldiak, soilik burutu ahal izango dira bertako arduradunekin hitzarmena sinatzea posible bada. Ipar Euskal Herriaren kasuan, hitzarmen espezifiko bat sinatuz bideratu da bertako ikastetxe batean praktikak egin ahal izatea 2021-22 ikasturtean.

Bestetik, Zuzendaritza Batzarrean Practicum arautegian egindako eguneraketak onartu dira. 2022-23 ikasturtean aplikatuko diren ondoko aldaketak jasotzen ditu:

* Practicuma 2 aste murriztu: 8,5tik 6,5era

* Ikastetxean egunero batez beste 5,5 ordu (gutxienez 3 eta gehienez 7)

* Udazkenean praktikak egiteko aukera, 1)Irakasgai guztiak gaintututa izanez gero eta 2)Masterra 2 urtetan egin nahi duten ikasleei begira

Erabakia: 2022-04-25 Zuzendaritza Batzarra

Titulazioak:
MPROSEG

PEC :	RES :	MES	MOT	RET :	MET: X
-------	-------	-----	-----	-------	--------

2.6., Berrikuntza Ikasgelan ibilbidea

Ekintza kodea: 20-MPROSEG-MET-8

Berrikuntza Ikasgelan

Espezialitate bakoitzean, ohiko ibilbideaz gain, Berrikuntza Ikasgelan ibilbidea ere eskaintzen dugu, irakaskuntzaren alderdi praktikoan gehiago sakontzeko aukera ematen duena. Ibilbide hau aukeratzen duen ikasleak, praktikaldia burutzen duen ikastetxean bere egonaldia luzatuko du berrikuntza egitasmo bat landuz bertan. Ikasgai hau III. Modulu Espezifikoan kokatzen da eta 6 ECTStako zama dauka.

2021-22 ikasturtean, ibilbidearen hobekuntza gisa, praktikaldia, berrikuntza egitasmoaren lanketa eta Master Amaierako Lanaren arteko lotura ezarri da, ikasleari ibilbide oso eta bakar gisa eskainiz.

Arduradun-postua: Secretaria académica

Jatorria: Besteak

Itxiera data: 2021/10/25

Hartutako neurriak

2021-22 ikasturtean, Berrikuntza Ikasgelan ikasgaiak praktikaldiarekin eta MALarekin duen lotura berraztertu da eta honela finkatu:

Berrikuntza Ikasgelan eta praktikaldia ikastetxe berean eta segidan egingo ditu ikasleak, biak bat eginda. Ikaslearentzako 8-9 asteko praktikaldia izango da berrikuntza egitasmo baten lanketa barne hartzen duena (praktikaldia + 2 aste). Ikastetxeak abian duen proiektu edo egitasmo bat behatu, deskribatu eta baloratu beharko du tarte horretan, Hezkuntza Berrikuntzari dagozkion irizpideak erabiliz. Master Amaierako Lana ere ildo beretik egingo du ikasleak, egokitu zaion berrikuntza egitasmoari ekarpenak eginez.

Berrikuntza ikasgelan eta MALaren arteko lotura:

* Berrikuntza ikasgelan: ikasleak behatu, deskribatu eta baloratu egingo du practicumeko ikastetxean abian dagoen proiektu bat

* MALa: Ikasleak bere Berrikuntza Proiektu propioa diseinatuko du, Berrikuntza Ikasgelan behatutako proiektuan oinarrituz (proiektua bera hobetzeko edo garatzeko proposamen propioa eginez).

Titulazioak:
MPROSEG



Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Goimailako Online Institutua
Goimailako Online Institutua

2.6., Berrikuntza Ikasgelan ibilbidea

PEC :	RES :	MES	MOT	RET :	MET: X
-------	-------	-----	-----	-------	--------

3.- IKERKETA

3.1, Ikerketa eta Transferentzia

Ekintza kodea: 21-MPROSEG-MET-3

Ikerketa Plana

GOI ikastegiak bere lehenbiziko ikerketa-plana osatu du 2021-22 ikasturtean. Ardatz nagusia ingurune digitala izango du, lankidetzara irekia eta teknologia eta hezkuntza gaitan zentratua.

Hiru ikerketa-esparru nagusi izango ditu GOI ikastegiak: Hezkuntza, Humanitate Digitalak eta Generoa. Eskaintzen den prestakuntzarekin batera, ikerketa eta dibulgazioa, biak izango dira ikastegiaren iparorratz, eta, hala, GOIko ikertzaile-taldeak eta harekin lankidetzan arituko diren lankideek erdigunean jarriko dute, gai horien inguruko ikerketa ez ezik, eginikoaren gizarteratzea eta transferentzia ere.

Arduradun-postua: Director

Jatorria: Besteak

Itxiera data: 2022/05/20

Hartutako neurriak

GOI ikastegiaren ikerketa-plana 2022ko maiatzaren 16an aurkeztu zen. Atxikita dokumentua.

Titulazioak:

MPROSEG

PEC :	RES :	MES	MOT	RET :	MET: X
-------	-------	-----	-----	-------	--------

3.- IRAKASKUNTZA

4.- RUDEAKETA

4.1, Langilegoaren kudeaketa eta formakuntza

Ekintza kodea: 20-MPROSEG-MET-7

Formakuntza-plana

2021-22 ikasturterako formakuntza-planak bi jardunbide jasotzen zituen:

1.- IRAKASLE BERRIENTZAKO FORMAZIO IKASTAROA

2.- IRAKASLE TALDE OSOARENTZAKO FORMAZIOA

Bi horietatik lehenbizikoa soilik egin ahal izan dugu. Hala ere, irakasleen online prestakuntza eta jarraipena bermatzeko, ondoko neurriak hartu dira:

* UEUko aholkularitza pedagogikoko taldeak (APE), irakasleen jarraipen pertsonalizatua burutu du, online irakaskuntzaren eredu eta masterreko eredu didaktikoa zainduz. Irakasle guztiek izan dute jarraipen saio pertsonalizatu bat gutxienez (ikasgaia hasi baino 15 egun lehenago).

* Ikasgaia hasi aurreko astean aholkularitza taldeak errebisio orokorra egiten du, Ikasgela Birtualean irakasgaiaren antolaketa, baliabideen erabilera eta barne eta kanpo loturak egokiak direla bermatzeko.



4.1, Langilegoaren kudeaketa eta formakuntza

* Ikasgela Birtualean eredu gisa baliabide sorta jarri da, ikasleen parte-hartzea eta jarraipena errazteko helburuarekin

Arduradun-postua: Director

Jatorria: Aurreko ikasturteko hobekuntza-ekintzen planetik eratorriak

Itxiera data: 2022/01/17

Hartutako neurriak

Irakasle berriekin harrera -eta formazio- saioa burutu da. 4 orduko iraupena izan du eta aholkularitza pedagogikoko arduradunak eta masterreko zuzendariak eman dute.

1. IRAKASLE BERRIENTZAKO FORMAZIO IKASTAROA

Helburuak:

* Irakaskuntza Masterraren egitura eta funtzionamendua barneratzea.

* UEUren online ikaskuntzaren eredu eta masterreko egitura didaktikoa barneratzea.

Formatua:

* Aurrez aurreko saio bat (4 ordu), Irakaskuntza Masterraren egitura, UEUren online metodologia, online komunikazioa eta masterraren egitura didaktikoa azalduz.

* Euskarri bezala, iazko online formazio ikastaroko edukiak.

Parte-hartzaileak: Eli Moreno, Iratxe Retolaza, Haritz Azurmendi, Irati Arrillaga, Borja Ariztimuño, Iñaki Murua, Carmen Gil Robles

Titulazioak:

MPROSEG

PEC :	X	RES :	MES	MOT	RET :	MET:	X
-------	---	-------	-----	-----	-------	------	---

4.6, Online ereduaren kudeaketa

Ekintza kodea: 20-MPROSEG-MET-6

Ikasgela Birtualaren eguneraketa

2021-22 ikasturtean GOI ikastegiaren Moodle plataforma digitalean (<https://ikasgela-birtuala.ueu.eus>) aldaketak izan dira:

* Batetik, Ikasgela Birtualako barne antolaketa eraberritu da. Orain arte ikasgaiak moduluka antolatuak zeuden eta hemendik aurrera ikasgai bakoitzak bere gunea edo ikastaroa izango du.

* Masterraren iruditeria berritu da.

* Ikasgela Birtualaren bertsioa eguneratu da 3.5.bertsiotik 3.10 bertsiora.

Arduradun-postua: Administración

Jatorria: Besteak

Itxiera data: 2021/09/30

Hartutako neurriak

Plataforma digitalean izandako aldaketek zenbait onura ekarri dituzte berekin:

* Ikasgaiak plataforman banaka antolatzeak nabigagarritasunean eta irisgarritasunean hobekuntza ekarri du.

* Masterraren iruditeria berritzeak ere nabigagarritasuna erraztu du koherentzia orokorra eman.

* Moodle bertsioa eguneratzeak segurtasun aldetik hobekuntzak ekartzeaz gain, erabilgarritasunaren aldetik ere egin du ekarpena: funtzionalitate berriak eskuratzeko aukera eman du, plataformaren onlinerako baliabideak hobetuz, Ikasgela Birtuala intuitiboagoa eginez eta ikasle zein irakasleen erabilera erraztuz.

Eguneraketa honetako hobekuntzetatik azpimarragarrienak, H5Paren integrazioa eta kalifikazio liburuan baldintzazko funtzioen formulak erabili ahal izatea izan dira.

Titulazioak:

MPROSEG

PEC :		RES :	MES	MOT	RET :	MET:	X
-------	--	-------	-----	-----	-------	------	---



Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Goimailako Online Institutua
Goimailako Online Institutua

5.- EBALUAZIOA

6.- KOMUNIKAZIOA

6.1, Kanpo eta barne komunikazioa

Ekintza kodea: 21-MPROSEG-MET-1

Maiz Egindako Galderak (MEG)

Ikasleak eskaintako arreta eta webguneak eskaintzen duen informazioa hobetu asmoz, masterraren inguruko galdera ohikoenak jasotzen duen atala garatu dugu webgunean:

<https://www.goi-institutua.eus/maiz-egindako-galderak>

Arduradun-postua: Director

Jatorria: Aurreko ikasturteko hobekuntza-ekintzen planetik eratorriak

Itxiera data: 2022/03/14

Hartutako neurriak

Masterrari buruzko galdera ohikoenak jasotzen dituen atala gehitu dugu: izen-emateari, praktikaldiari... buruzko galderekin. Atal hau, 3 espezialitateetarako berbera izango da eta urtez-urte eguneratuko da.

Helbide zehatza:

<https://www.goi-institutua.eus/maiz-egindako-galderak>

Titulazioak:

MPROSEG

PEC :	X	RES :	MES	MOT	RET :	MET:	X
-------	---	-------	-----	-----	-------	------	---



5. Emaizak

5.1 Prozesukako gestioaren gako emaitzak



5.2 Tituluen emaitza nagusiak

GRADUAK



Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Goimailako Online Institutua
Goimailako Online Institutua

MASTERRAK

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntzaren Unibertsitate Masterra

BALORAZIOA: GOI ikastegiak Irakasleen Prestakuntzarako Unibertsitate Masterraren bigarren edizio honen balorazio positiboa egiten du. Zenbakietara ekarrita, 132 plaza berri eskaini dira, lehen edizioan baino %10 gehiago, masterrak daukan demanda handiari erantzun nahian. Guztira 152 ikasle izan dira 21/22 ikasturtean, 132 matrikula berriak eta 21 aurreko ikasturteetatik etorriak. Matrikula-motari dagokionez, 103 matrikula osoak izan dira (%63,6) eta gainerako 49ak partzialak (%26,4). Emaitzei dagokienez, ikasleen %87k matrikulatutako irakasgai guztiak gaintitu ditu, eta 108 izan dira masterra amaitu eta titulua lortu dutenak. Ikasleek masterrari buruz egindako balorazioetan (1-5 eskalan), 4,4ko batez besteko nota jaso du. Irakasle gisa 26 laguneko taldea aritu da, 22 kolaboratzaile eta 4 irakasle propio.

	2018/2019	2019/2020	2020/2021	2021/2022
Tituluaren okupazioa Goi mug: Beh mug:			100.83	99.24
Tituluaren egokitzapena Goi mug: Beh mug:			57.02	99.24
Errendimendu tasa Goi mug: Beh mug:			96.76	97.10
Efizientzia tasa (egresatuen errendimendu tasa) Goi mug: Beh mug:			94.49	99.03
Gogobetetze maila irakaskuntzarekin Goi mug: Beh mug:			4.00	4.00
Sarrera ikasturtearen datuak	2016/2017	2017/2018	2018/2019	2019/2020
Ikasketen uzte tasa 1. urtean (CURSA) Goi mug: Beh mug:				
Sarrera ikasturtearen datuak	2017/2018	2018/2019	2019/2020	2020/2021
Graduazio tasa Goi mug: Beh mug:				
Sustapenaren urtea *	2015	2016	2017	2018
Egresatuen gogobetetzea Goi mug: Beh mug:				
Enplegu tasa Goi mug: Beh mug:				

* Adierazle hauen erreferentziako biztanleria LANBIDEko inkestari erantzun dioten promozioeko egresatuen kopurua da. Erantzun kopurua 5 edo gutxiago bada, datuen babesa dela eta, ez dira emaitzak ematen.



6. Europar Unibertsitateen ildo eta estandarren jarraipena

1. DIMENTSIOA: KALITATE POLITIKA ETA HELBURUAK

1. IRIZPIDEA. KALITATE KULTURA EZARTZEA

ikastegiak jarduera batzuk definitzen ditu eta aldiro berrikusten ditu, kalitate kultura bat garatzeko, kasuan kasuko interes taldeak inplikatur. Bere kalitate politikan eta unibertsitatearen helburu estrategikoetan oinarrituta egongo dira.

AUDIT ILDOAREN AZTERKETA 1.0.Kalitate Politika eta Helburuak

1.1, Urteko Plangintza eta Kudeaketa
5.1, Emaizten jarraipena eta azterketa

1.2, Titulazioaren plangintza eta akreditazioa
6.1, Kanpo eta barne komunikazioa

2. DIMENTSIOA. PROGRAMEN DISEINUAREN KUDEAKETA

2. IRIZPIDEA. PRESTAKUNTZA PROGRAMEN KALITATEA BERMATZEA

ikastegiak baditu bere gradu, master eta doktorego programak diseinatzeko, onartzeko eta aldiro akreditatzeko prozedura batzuk, eta bermatzen du interes taldeek haietan parte hartzea, bereziki, ikasleek. Horri esker, ikastegiak bere prestakuntza eskaintza mantentzen eta eguneratzen du.

AUDIT ILDOAREN AZTERKETA 1.1.Prestakuntza Programen Kalitatearen Bermatzea

1.1, Urteko Plangintza eta Kudeaketa
2.2, Irakaskuntzaren antolaketa eta koordinazioa
6.1, Kanpo eta barne komunikazioa

1.2, Titulazioaren plangintza eta akreditazioa
5.1, Emaizten jarraipena eta azterketa

3. DIMENTSIOA. PRESTAKUNTZA PROGRAMEN IRAKASKUNTZA

3.1 IRIZPIDEA. IKASLEA ERDIGUNEAN JARTZEA

Ikasleak baditu definituta ikaslea ikaste prozesuaren erdigunean jartzeko prozedura batzuk. Prozedura horiek aintzat hartu behar dituzte sarrerako profil desberdinak eta lagun izan behar dituzte irakaskuntza modalitate eta metodologiak, tutoretza planak, ebaluazio sistemak eta bestelako baliabideak, ikasleek tituluaren espero diren emaitzak lortzea bultzatzen dezaketena.

AUDIT ILDOAREN AZTERKETA 1.2.Ikaslea Erdigunean Jartzea

1.1, Urteko Plangintza eta Kudeaketa
2.1, Izen-ematea eta matrikula
2.3, Tutoretza
2.5., MAL
4.3, Kredituen aitortzea eta transferentzia
4.6, Online ereduaren kudeaketa
5.2, Iradokizun eta kexen kudeaketa

1.2, Titulazioaren plangintza eta akreditazioa
2.2, Irakaskuntzaren antolaketa eta koordinazioa
2.4, Practicuma
2.6., Berrikuntza Ikasgelan ibilbidea
4.4, Beka, ziurtagiri eta tituluen kudeaketa
5.1, Emaizten jarraipena eta azterketa
6.1, Kanpo eta barne komunikazioa

4. DIMENTSIOA. LANGILE AKADEMIKOEN ETA IRAKASKUNTZARI LAGUNTZEKO LANGILEEN BERMEA ETA HOBEKUNTZA



Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Goimailako Online Institutua
Goimailako Online Institutua

4. DIMENTSIOA. LANGILE AKADEMIKOEN ETA IRAKASKUNTZARI LAGUNTZEROK LANGILEEN BERMEA ETA HOBEKUNTZA

3.2. IRIZPIDEA. IRAKASLEEN ETA IRAKASKUNTZAN LAGUNTZEROK LANGILEEN KALITATEA ETA HOBEKUNTZA BERMATZEA

ikastegiak baditu mekanismo batzuk ziurtatzeko bertako irakasleen eta irakaskuntzan laguntzen duten langileen sarbide prozesua, kudeaketa eta prestakuntza eta ebaluazio sistematikoa eta aldirokoa behar bezalako bermeekin egiten direla, haiei modua emanaz beren zereginak askatasunez betetzeko, eta beren integritate akademikoa errespetatuz.

AUDIT ILDOAREN AZTERKETA 1.3.Langile akademikoaren eta Irakaskuntzari Laguntzerok Langileen Bermea eta Hobetzea

1.1, Urteko Plangintza eta Kudeaketa	1.2, Titulazioaren plangintza eta akreditazioa
4.1, Langilegoaren kudeaketa eta formakuntza	4.6, Online ereduaren kudeaketa
5.1, Emaizten jarraipena eta azterketa	6.1, Kanpo eta barne komunikazioa

AUDIT ILDOAREN AZTERKETA 1.4.b.Administrazio eta Zerbitzuak Langileen Kalitatea

1.1, Urteko Plangintza eta Kudeaketa	1.2, Titulazioaren plangintza eta akreditazioa
4.1, Langilegoaren kudeaketa eta formakuntza	5.1, Emaizten jarraipena eta azterketa
6.1, Kanpo eta barne komunikazioa	

5. DIMENTSIOA. BALIABIDE MATERIALEN ETA ZERBITZUEN BERMEA ETA HOBEKUNTZA

3.3 IRIZPIDEA. BALIABIDE MATERIALAK ETA ZERBITZUAK BERMATZEA ETA HOBETZEA

ikastegiak badu mekanismo bere zerbitzu eta baliabide materialak diseinatu, kudeatu eta hobetzeko, ikasleen ikaskuntza-irakaskuntza egokia bermatzeko.

AUDIT ILDOAREN AZTERKETA 1.4.a.Baliabide Materialak eta Zerbitzuak Bermatzeko eta Hobetzea

1.1, Urteko Plangintza eta Kudeaketa	1.2, Titulazioaren plangintza eta akreditazioa
4.5, Kudeaketa ekonomikoa	5.1, Emaizten jarraipena eta azterketa
6.1, Kanpo eta barne komunikazioa	

6. DIMENTSIOA. EMAITZAK. INFORMAZIOAREN KUDEAKETA

4. IRIZPIDEA. EMAITZEN ANALISIA

Erabakiak hartzeari eta ikasketen kalitatea hobetzeari begira, ikastegiak baditu definiturik prozedura batzuk etengabe jaso, analizatu eta erabiltzeko bai irakaskuntzaren emaitzen datuak, eta bai beste datu batzuk ere, hala nola ikasketaren emaitzenak, laneratzearenak eta interes taldeen gogobetetze mailarenak.

AUDIT ILDOAREN AZTERKETA 1.2.Ikaslea Erdigunean Jartzea

1.1, Urteko Plangintza eta Kudeaketa	1.2, Titulazioaren plangintza eta akreditazioa
2.1, Izen-ematea eta matrikula	2.2, Irakaskuntzaren antolaketa eta koordinazioa
2.3, Tutoretza	2.4, Practicuma
2.5., MAL	2.6., Berrikuntza Ikasgelan ibilbidea
4.3, Kredituen aitortpena eta transferentzia	4.4, Beka, ziurtagiri eta tituluen kudeaketa
4.6, Online ereduaren kudeaketa	5.1, Emaizten jarraipena eta azterketa
5.2, Iradokizun eta kexen kudeaketa	6.1, Kanpo eta barne komunikazioa

AUDIT ILDOAREN AZTERKETA 1.5.Informazioa eta emaitzak aztertzea

1.1, Urteko Plangintza eta Kudeaketa	1.2, Titulazioaren plangintza eta akreditazioa
--------------------------------------	--



Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Goimailako Online Institutua

Goimailako Online Institutua

6. DIMENTSIOA. EMAITZAK. INFORMAZIOAREN KUDEAKETA

2.2, Irakaskuntzaren antolaketa eta koordinazioa

4.6, Online ereduaren kudeaketa

6.1, Kanpo eta barne komunikazioa

2.3, Tutoretza

5.1, Emaizen jarraipena eta azterketa

7. DIMENTSIOA. GARDENTASUNA, JARDUEREN ETA PROGRAMEN HEDAPENA ETA EMAITZAK

5.2 IRIZPIDEA. JARDUERA ETA PROGRAMEI BURUZKO INFORMAZIOA ARGITARATZEA

ikastegiak badauka prozedurarik bere jarduera eta programei buruzko informazio eguneratua aldiro argitaratzeko, eta horrek bermatzen ditu erabakiak hartzeko prozesuak, kontu ematea eta etengabeko hobekuntza, erakundearen maila guztietan.

AUDIT ILDOAREN AZTERKETA 1.6. Titulazioei buruzko informazioa argitaratzea

1.1, Urteko Plangintza eta Kudeaketa

2.1, Izen-ematea eta matrikula

2.3, Tutoretza

2.6., Berrikuntza Ikasgelan ibilbidea

4.5, Kudeaketa ekonomikoa

5.1, Emaizen jarraipena eta azterketa

6.1, Kanpo eta barne komunikazioa

1.2, Titulazioaren plangintza eta akreditazioa

2.2, Irakaskuntzaren antolaketa eta koordinazioa

2.4, Practicuma

4.1, Langilegoaren kudeaketa eta formakuntza

4.6, Online ereduaren kudeaketa

5.2, Iradokizun eta kexen kudeaketa



7. Hobekuntza ekintzen plana hurrengo ikasturterako

1.- PLANGINTZA

2.- IKAS-IRAKASKUNTZA

3.- IRAKASKUNTZA

3.- IKERKETA

4.- KUDEAKETA

5.- EBALUAZIOA

6.- KOMUNIKAZIOA



Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Goimailako Online Institutua

Goimailako Online Institutua